



SAN JUAN JAIETAKO HAINBAT EKITALDI, UDALETXEKO BALKOI NAGUSITIK IKUSTEKO IZEN EMATEA ZABALIK

Udalak lehengo urtean eman zuen **lehen aldiz** San Juan Jaietako hainbat ekitaldi Udaletxeke Balkoi Nagusitik ikusteko aukera.

Aurten ere San Juan jaietan Udaletxeke balkoitik hiru ekitaldi ikusteko aukera eskaini nahi diegu herritarrei, izena eman dutenen artean zozketa eginez. Beharrezkoa denez izen ematea eta zozketa arautuko duten oinarri-arauak finkatzea, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe erabaki dut oinarri arau hauek onartzea:

n Zozketaren helburua

Izena eman duten herritarren artean zozketa elektronikoa egitean ikusi ahal izateko Udaletxeke balkoitik 2017ko San Juan jaietako ekintza hauek:

- Haurren danborrada, ekainaren 17an
- Errementari Dantza, ekainaren 23an
- Nagusien danborrada, ekainaren 23an

n Izena ematea:

- Non: Udalaren webgunean (www.arrasate.eus) eta BAZen
- Noiz: 2017ko ekainaren 1etik 10ra
- Izena ematerakoan herritarrak aukeratu ahal izango du ikusi nahi duen ekintza interes ordenaren arabera.

n Zozketa:

- Zozketa egingo da ekainaren 14an.

n Zozketaren prozedura:

- 1. zozketa: ekintza bakoitzean .1 lehentasuna aukeratu dutenen artean. Hautatuko dira 15 lagun.
- 2. zozketa: plazak beteko ez balira ekintza bakoitzean 2. lehentasuna edota 3 lehentasuna aukeratu dutenen artean; aurreko zozketetan irabazle suertatu ez direnen artetik, plazak bete arte.



n Zozketaren berri ematea:

- Irabazleei jakinaraziko zaie telefonoz, edo SMS mezu bidez edo/ eta posta elektronikoz.

n Izena emateko baldintzak:

- Arrasaten erroldatuta egotea
- 16 urtetik gorakoa izatea

n Zozkatuko den toki kopurua:

- Ekintza bakoitzeko 15 toki bikoitz; balkoian uneoro gehienez 30 lagun egon ahal izango dira eta
- 16 urtetik beherako haurren kasuan nagusi batekin joan behar direnez, adinez nagusiak eman behar du izena.
- Zozketaren irabazleak ez du aukera izango ekintza bat baino gehiagotara joateko

n Irabazleak Udaletxeko balkoira joateko:

- Irabazle suertatu direnak Udaletxeko sarreran agertu beharko dira NANarekin egun eta ordu hauetan:

ü Haurren danborrada ikusteko ekainaren 17an. Ordua: 19:30

ü Errementari dantza ikusteko, ekainaren 23an. Ordua: 22:00

ü Nagusien danborrada ikusteko ekainaren 23an. Ordua: 23:30